


PSZ GALDETEGIAREN BALORAZIOA

Galdetegia abenduaren 17an publikatu zen eta urtarilaren 13an itxi da. 20 erantzun jaso dira. Bik izena azaldu dute gainontzekoak anonimoak izan dira.

0-16 urte bitarteko haurrak badituzu?// ¿Tienes hijas/os entre 0-16 años?

20 respuestas




Erantzun dutenetatik 18k, 0-16 urte bitarteko haurrak dituzte.

Erantzun dutenetatik 15k, 4-12 urte bitarteko haurrak dituzte. 3 guraso, 12-16 bitartekoak eta beste 3 gainontzekoak.

Zerbitzua ezagutzen zenuen? // ¿Conocías el servicio?


20 respuestas



PSZ galdetegiaren balorazioa 2026ko urtarila

Zerbitzua ezagutzen zenuen? // ¿Conocías el servicio?


20 respuestas



Zerbitzua orokorrean ezagutzen da, 17k bai hiruk ez.

Nola baloratuko zenuke, oro har, parte hartzea sustatzeko zerbitzua? // ¿Como valorarias, en general, el servicio?


20 respuestas



17k 3tik gorako puntuaketa eman dio, hortik behera 3k.

Uste duzu zerbitzuak herriko haurren eta gazteen parte-hartzea sustatzen duela? // ¿Crees que el servicio fomenta la participación?


20 respuestas



Parte hartzea ea sustatzen duen galdetuta, erabat (2), asko (6) eta neurriz (3), 11 erantzun positibo izan dira gutxi (7) eta batere ere ez (2), 9 erantzun negatibo.

Uste duzu zerbitzuak herriko printzipioen lanketan laguntzen duela? ¿Crees que el servicio ayuda en trabajar los principios del pueblo?

20 respuestas




Herriko printzipioen lanketan laguntzen duen edo ez galdetuta, bai erabat (4) eta bai nahikoa (4) erantzun positiboak eta ez batere (1) eta ez asko (8) izan dira, 9 erantzun negatibo hortaz. 3k ez dakite.

Galdera honen arrazoiketan hauek erantzunak:

- *Herriko umeak euskaraz eta herrian egon eta atxitzeko aukera da!*
- *Gazteon zerbitzua herrien beharretara dagoela iruditzen zait, herriko edozer gauzetarako hor daudela.*
- *Estoy agradecida.*
- *Herria haurrentzako dago antolatua, gazteentzako espazioak gutxi dira eta gaztetxerako sarbidearen funtzionamendua ez doa ondo. Txartel fisiko batekin askoz hobe joango zen udaletxekoa edo liburutegikoa bezala.*
- *Nolako haurrak nahi ditugun galdetzen dugu eta erantzuna ekintzen bidez bultzatu liteke. Zerbitzu honek bakarrik ezin du bermatu bere horretan, baina tantoz tanto bai, noski laguntzen duela.*
- *Haur autonomoak eta ekintzaileak nahi ditugu besteak beste, eta ekintza hauek ez dute ez bats ez bestea sustatzen. Dena egina ematen baitzaie eta.*
- *Jarraitu horrela!*
- *Herriko umeak danak dira 2-16 urte arte eta txikiak ekintza askotan kanpo gelditzen dira.*


PSZ galdetegiaren balorazioa 2026ko urtarila

Asteazkenetako kale-ekintzen balorazioa (4–12 urte). Kale-ekintzen ordutegia eta kokapena egokiak direla iruditzen zaizkizu?// Valoración de las acci...ecuado el horario y la ubicación de los actividades?
20 respuestas



Ekintzaren ordue eta espazioaren egokitasunaren inguruan, orohar, balorazio ona jasotzen da.


Asteazkenetako kale-ekintzen balorazioa (4–12 urte). Jarduerak haurren adinera egokitu daudela uste duzu?// Valoración de las acciones de calle d... están adaptadas a la edad de los niños y niñas?//
20 respuestas



Jarduerak haurren adinera egokituak daudela baloratzen da. Neurritz (9), asko (5) eta erabat (3). Batere (1) eta gutxi (2).

PSZ galdetegiaren balorazioa 2026ko urtarilla

Asteazkenetako kale-ekintzen balorazioa (4–12 urte). Haurren motibazioa eta parte-hartzea nolakoa dela ikusten duzu? // Valoración de las act...otivación y la participación de los niños y niñas?// 20 respuestas



Haurren motibazioa eta parte hartzearen inguruan oso altua (2), altua (5) eta ertaina (9), balorazio positiboa da. Oso baxua (2) eta baxua (2), 4 erantzun negatibo.


Asteazkenetako ekintzen inguruan:

- *Nire hurrek ez dute parte hartzen*
- *Estoy agradecida*
- *Ezin da izan denon gustokoa*
- *Zaila da eskolaz kanpoko ekintzez josita dauden haurrak elkartzea, zaila da eguna aukeratzea.*
- *Es un buen servicio, pero relación coste y participación Yo personalmente lo quitaba.*
- *Nire hurrek ez dute ekintza askotan parte hartzen (asteazkenetan beste jarduera dute), eta, beraz, ezin ditut oso modu objektiboan baloratu. Baina programazioa denetarikoa dela uste dut. Egia esan, adin tartea hain zabala izanik, ez da erraza adin guztietara era berean iristea (ekintza guztiekin adin guztietan asmatzea). Ume talde handiak parte hartzen du askotan, eta hori kudeatzea ere ezin da erraza izan. Zaila da arreta mantentzea. Are gehiago, parte hartzen ez duen lagunen bat edo gurasoak inguruan edo plazan badira.*
- *Mayor formación de las monitoras. Actividades más variadas, no solo manualidades que trabajen por valores comunitarios e inclusivos teniendo en cuenta la heterogeneidad de culturas y familias del pueblo.*
- *Asteazkenetan extraeskolarrak bat duenak ez da joaten urte osoan. Ondo egongo zan eguna txandakatzea, aste batean asteazkena eta asteartea hurrengoan adibidez*
- *Egiten diren eskulan asko, begiraleek egiten dituzte askotan, haurrak prozesu guztia, edo zati haundi bat egiteko gai ez direlako. Joaten diren haur kopurua kontuan harturik, aisialdiko ekintza bakarrik izanik bi begirale gehiegizko ratio*

kostua da. Eduki hezigarri eta komunitario zehatzak txertatzea baliagarria izan liteke, prebentzio eta sentsibilizazioa, haur komunitate kohesioa lantzeko, aisialdi ekintza soilik izan gabe. Horretarako perfil profesional egokia kale hezitzailea izan daiteke, perfil hau, gizarte arloko profesional espezializatuak emanaz, tartean gizarte langile, gizarte hezitzailea, psikologo e.a. Prebentzioa eta heziketa landuko duen eskuhartze soziohezitzaile eta psikosoziala eskaintzea oso baliagarria izan liteke, besteak beste zehaztutako printzipio horiek helburuen artean egonik.

- *Gurasoen inplikazioak garrantzia handia du. Hori lantzea izan daiteke erronka*
- *Ez dute ume guztiengan pentsatzen*
- *Askotan ekintza bakarra egiten uzten diote eta beste ordubete hori kanpon gelditzen dira.*
- *Ekintzak ez dira originalak eta haurrak bost minututan aspertzen dira*


Ostiraletako gaztelekuko jardueren balorazioa (12–16 urte). Gaztelekuko jarduerak gazteen interesak kontuan hartzen dituztela uste duzu? // ...tienen en cuenta los intereses de los/as jóvenes?//
20 respuestas



Ostiraletako gaztelekuko ekintzen inguruan gazteen interesak kontuan hartzen direla uste da orohar.


PSZ galdetegiaren balorazioa 2026ko urtarila

Ostiraletako gaztelekuko jardueren balorazioa (12–16 urte)// Gaztelekua gazteentzako espazio segurua eta atsegina dela iruditzen zaizu? // Valo... es un espacio seguro y agradable para la juventud?
20 respuestas



Gaztelekua, orohar, espazio segurua eta atsegina dela iruditzen da.

Ostiraletako gaztelekuko jardueren balorazioa (12–16 urte) . Gazteek proposamenak egiteko aukera dutela uste duzu? // Valoración de las actividades...jóvenes tienen la oportunidad de hacer propuestas?
20 respuestas



Gazteek ekintzak proposatzeko aukeraren aurrean, erantzun duten erdiek baino gehiagok ez daki baloratzen.


Gaztelekuko dinamikaren inguruan zerbait gehiago aipatzeko:

- *Udalak Aiuriren mugikorra eskatu izanak asko harritu dit. Uste dut, guraso asko pantailak direla eta kezkatuta gaudela eta marearen kontra gabiltzela gazteen osasunaren alde borrokan. Gure kasuak, Aiurik printzipioz mugikorrik ez izatearen apustua egin dugu eta gero eta guraso gehiago izango garelakoan nago. Gazteekin komunikatzeko beste bide batzuk arakatu beharko genituxkela uste dut, AltxaBurua taldearekin ere aztertu daitekeen gaia dela uste dut. Bestalde, egunez aldatzea ere ondo legoke, igande arratsaldeak arrakastatxuagoak izan daitezkeela ikusten dugu.*

PSZ galdetegiaren balorazioa 2026ko urtarila

- *Uste dut gazteek, beraien kasa, begirale gabe, gozatu nahi dutela gaztelekuaz. Ostirala, lagunekin egoteko eguna da beraientzat, askotan, astean zehar ezin direlako geratu. 8tan, begiraleak joan ondoren, gaztelekuan sartzen dira batzutan.*
- *Estoy agradecida*
- *Espazioa hartzean gainontzeko gazteak ezin dugu gaztetxean egon, ondorioz espaziorik gabe geratzen gara herrian.*
- *Aurrerik gauza bera pentsatzen buen eta aurten erabat baieztatu zait iritzia. Talde naturalak ez dira kontuan hartzen. Kasu honetan hurbiletik jotzen dit, "banekien dbhra joatean lagunak zeozer galduko nituela, urtebete gehiagoz kendu dizkidate" hau da gazte baten ondorioa. Ostiraletan gazteak plazatik desagertzen dira herri giroa hoztuaz.*
- *Ez dut ezagutzen oso ondo dinamika / jarduerak. Dena den, ez da erraza izango adin tarte horretako nerabeak erakartzea, kontuan izanda 12 urtetik aurrera Ordiziara edo Beasainera joaten direla ikastera eta lagun taldea alboko herrietan egiten dutela.*
- *Ez dut ekintza hauek baloratzeko informazio nahikorik, baina txikien taldean bezela eskuhartze soziohezitza eta psikosoziala eskainiko nuke. Adin tarte horretako gazteekin adostutako behar, interés eta ekintzak burutzea oso baliagarria izan liteke prebentzioa eta heziketa lantzeko. Haurren berriak zehaztutako printzipio horiek helburuen artean egonik.*
- *Ez dut ideiarik nola funtzionatzen duen. 3 bat eman diot jakin gabe*
- *Gure haurrak adin horretan ez daude, beraz ez dakit*

Hezitzaile eta zerbitzuaren funtzionamendua. Hezitzaileen lana eta jarrera nola baloratuko zenuke?
// Funcionamiento del las educadoras y del servicio....lorarías el trabajo y la actitud de las educadoras?
20 respuestas




Hezitzaileen lana egoki baloratzen da.

PSZ galdetegiaren balorazioa 2026ko urtarilla

Balorazio orokorra eta hobekuntza-proposamenak. Zerbitzua mantentzearen alde zaude? //

Valoración global y propuestas de mejora. ¿Está a favor de mantener el servicio?

20 respuestas



Zerbitzua mantentzearen inguruan, bai egungo moduan (7), bai hobekuntzekin (6) erantzun dute. 6k ez lukete zerbitzua mantenduko. Honen inguruan:

- *Zerbitzu egokia ematen dutela uste dut.*
- *Ostiraletan gazteek ez dute gaztelekuan begiraleekin egon nahi, ez dut esan nahi begiraleen lana ez dela egokia, baina hausnartu beharko litzateke, askotan, ostiraletan begiraleak hor daude, haurrik gabe*
- *Por qué llevan buen control.*
- *Espazio horretan egiten dituzten ekintza asko herriko beste tokietan egiteko aukera dagoenean adibidez ludoteka, plaza, etb.*
- *On egiten duen zerbitzu bat da*
- *Ekintzak horren gidatusk izan gabe jarrera kritiko eta aktibo bat sorrarazi beharko lukete gure haurrengan. Esfortzuaren kultura zeozer zabaldu beharko genuke, dena egina ematen diegu eta ez dute Konpromizurik hartu beharrik.*
- *No se*
- *Jarraitu beharreko jarduerak direla uste dut*
- *Relación coste y participación, personalmente lo quitaba*
- *Ez dakit zein hobekuntza proposatu...*
- *Ya he mencionado en puntos anteriores posibles mejoras.*
- *Haur guztientzako ez da zuzenduta, asten zehar ez dabilta haur asko herriam eta oso ume gutxik erabiltzen dute*
- *Aurreko galderakoa*
- *Udalak zerbitzu honekiko zein balorazioa, ebaluazio egiten duen , zerbitzua kontratatu eta ezarri zituen helburuen lorpen maila, zein gabezi eta indargune ikusten dizkion jakitea lagungarria izan daiteke gurasoentzat. Lehen aipatu bezela, espazioa baliagarria izan liteke herriko haur eta gazteei zuzendua,*

baina ez aisialdiko begiraleen bidez. Eskuhartze soziohezitzaile eta psikosoziala eskainiko nuke profesional egokiekin, eskuhartze eta proiektu komunitarioen bidez.

- *Aldaketak baino, gurasoekin lanketa egingo nuke.*
- *Bi lanpostu ematea besterik ez zait iruditzen, izan ere hitz egin dudana nerabe zein haurrek ez dute sekulako ongi pasa dutela aipatzen*
- *La propuesta actual es buena*
- *Txikiak ere barne egotea, ipuin kontaketa, eta ekintza askotan.*
- *Ez dira originalak. Ez dute herriko ezerekin loturarik. Betiko eskulanak dira.*

Zein hobekuntza proposatzen dira?

- *Ezta bat.*
- *Beharrezkoak dira begiraleak?*
- *Todo está bien hasta hoy*
- *Gaztetxea gazte guztientzat izatea eta nahi duenak nahi duenean sartu ahal izatea.*
- *Ekintza bereziak egiteko esfortzu bat eskatu gazteei, zeozer eman zeozeren ordainetan adibidez. Herri txikia gera eta taldeak nolanahi banatzeak kalte egin diezaiekete batzuei, ostiralak izaten dira estraeskolarrrik gabeko egun bakarrak eta batzuk plazatik ateratzen baditugu justu harremanak sendotu behar dituzten unean, bereizketak nabarmentzen dira, luzarora haur eta gazte haurk herriarekin izango duten harremana hoztuaz.*
- *Ninguna*
- *Hobekuntzaren bat aipatzearen, agian haurren eta nerabeen iritzia jaso, ekintzen egutegia antolatzerakoan. Talde handiak direnean, adin tartearen araberrako banaketak egin. Zerbitzuaren aurkezpena egin daiteke eskolan, haurrek ekintzen berri izan dezaten. Asteazkenetako zerbitzuaren kasuan agian (agian gurasoei, eskuorri baten bidez, guraso elkarrearen bidez edo eskolaren bitartez), ez, baina gaztelekuko dinamikaren aurkezpena egin daiteke Lehen Hezkuntzako azken urtean diren ikasleei.*
- *Actividades adaptadas desde los 2 años (campamentos y los miercoles), programacion más atractiva, mejores profesionales (educadores de calle)*
- *Gutxi.*
- *Beste metodologia bat erabiltzea*
- *Adin guztientzako ekintzak egotea.*
- *Herria ezagutzeko ekintzak, ekimen aktibagoak, partehartzea ez izatea soilik produktu bat sortzea,... udalekuan ere begiraleen izaerak eragina du*


Alderdi positiboak:

- *Udaletxeak umeengatik beidatzen duela.*
- *Begiraleak oso sinpatikak dira eta beti alaitsu etortzen dira*
- *Haur guztiei irekita dagoela*
- *Ekintzak egotea*
- *asteazkenetako ekintzen begiraleek oso jarrera ona dute*
- *Gure bi alabek asko gozatzen dute; entzunak, baloratua.... sentitzen dira eta proposamenekin oso pozik agertzen dira orokorrena.*
- *Haur eta gazteen parte hartzea*
- *Herriko haurrak elkartzeko gune bat izatea*
- *La implicación de los niños y de los padres*
- *Udaletxean lanean ari direnen hurrei begiraturiko ekintzak daude, beraientzat hori positiboa izango litzatekeela uste dut, gainontzean, ez dut alderdi positiborik ikusten*
- *El horario y la motivación por mejorar*
- *Todo*
- *Que haya un punto de encuentro y unas actividades dirigidas para todos los niños del pueblo que quieran asistir, tanto el miércoles como el viernes*
- *Todo*
- *Nahiz eta ordutegi bat izan gaxtetxea badagoela.*
- *Jarreta eta jardiera egokiak.*
- *Oso baikorra da haurrentzako eta gazteentzako ekintzak eta jarduerak antolatzeke egiten den ahalegina. Parte hartze aktiboa sustatzea, denbora pasatzeko askotariko jarduerak eskaintzea eta euskaraz jolasteko eta ongi pasatzeko aukera ematea oso positiboa da. Are gehiago, gaur egun euskararen erabilerarekin dauden joerak eta arazoak ikusita. Gazteek eta hurrek elkarrekin harremanak izateko aukera ederra da. Hobekuntzaren bat aipatzearren, sгийн haurren eta nerabeen iritzia jaso, ekintzen egutegia antolatzerakoan. Talde handiak direnean, adin tartearen arabera banaketak egin...*
- *Haurren eta gazteei zuzenduriko espazioa. oso emankorra eta eraginkorra izan liteke.*
- *Inklusiorako giltza da*

PSZ galdetegiaren balorazioa 2026ko urtarila

Udalak haur, nerabe eta gazte arloan nahikoa egiten duela uste duzu? //¿Crees que el ayuntamiento hace suficiente en ambito infantil y juvenil?

20 respuestas



Udalak haur, nerabe eta gazte arloan nahikoa egiten ote duen galdetuta 12k ondo baloratzen du, 6k gutxigo.

Arrazoitzeko eskatuta, hau erantzun dute:

- *Herri txikia gara eta zerbitzu onak ditugula uste dut. Primeran ari zarete!*
- *Gazteon kasuan kontuan ez direla hartzen iruditzen zait, beti beraien balioa frogatzen eta beraengan konfidantza izateak egoteak nekea eta desmotibazio sortzen duela uste dut eta ondorioz etorkizuneko herriko proiletuan parte hartze ahula izango dugula beraien aldetik.*
- *Ez da erraza gazteekin asmatzea, askotan nahiago dute herritik kanpo atera*
- *Por qué son un gran apoyo.*
- *Herriko ekintza gehienak aurrentzat daude pentsatuta.*
- *Aisialdi gidatua ezinbestekoa da herri batzutan eta zerbitzu hori ordaindu egin behar da*
- *Gazteria foroa dago, begirada beraingana jartzen dueb taldea delarik*
- *No lo se*
- *Jardueraz gain, egunerokoan egokitutako instalazioak eskaini*
- *Si demasiado*
- *Urte osoan zehar, ekintza eta jarduera ugari antolatzen ditu haurrentzat zein gazteentzat. Ahalegin handia egiten dela uste dut. Ezin da ahaztu herri txiki bat dela.*
- *Creo que podría destinarse una partida economica mayor para la infancia, tampoco se adapta a los cambios interculturales y sociales del pueblo.*
- *Nahikoa egiten du dirua gastatzen, beste gauza inportantegoetan gastatu beharko Luke, benetako haur eta gurasoen be*

- *Baliabide eta medio asko bideratzen ditu, baina hauen bilakaera eta ebaluaketa jarraitua egitea ezinestekoa da, eta gazte eta herritarrek emaitza hauek ezagutzea, zerbitzuak ezartzean zein helburu lortzeko ezarri ziren eta hauen lorpena, gogobetea, behar berrietara egokitu, beregokitu, berplanteatu, baliabide ekonomiko mugatuak berbideratu lehentasunezko ekintzetara.*
- *Garrantzia ematen dio. Agian haurren eta familien aniztasuna (jatorria, kultura, hizkintza, baliabide ekonomikoak...) kontutan hartu beharko litzateke.*
- *Itsasondo haurren herria da. Gazte eta zaharrak hainbat ekintzetan ahaztuak daudela iruditzen zait*
- *Creo que intenta cubrir las necesidades en la medida de lo posible*
- *Udaletxeak lagundu egin beharko zuen urteko ekintza askotan batez ere umenak herria bizirik mantentzeko.*
- *Nabaritzen da saiakera handia dela*


Udalak sakondu beharreko gaiak hauek beharko luketela erantzun dute:

- *Egia esan ez dakit erantzuten, zerbait esate aldera asteburu batzuetan gazteek topagune "falta" dutela esango nuke.*
- *Haiek seriotasun gehiagorein hartu beharko zirela iruditzen zait.*
- *Gazteei entzun beharko litzaieke, zer nahi duten*
- *En los niños y Jóvenes*
- *Gaztetxea gazteen esku izatea, arau batzuekin baina libreak izateko aukerarekin.*
- *Inklusiorako begiradan, inoiz ez da nahikoa*
- *Herriarekiko atxikimendua*
- *No se*
- *Instalazioen hobekuntzan*
- *Bastante ace*
- *Hizkuntzaren erabileran eta herriko ekintzetan gazteen inplikazioan edo parte hartzean. Herri sentimendua indartzen.*
- *prevención de problemáticas, dinámicas más participativas y atractivas.*
- *Benetazko herriko beharrak hausnartu eta benetan, aurrera eraman.*
- *Txikien udalekuak GE antolatu, sexualitatea, dolua, harreman osasuntsuak, pantailak, kulturartekotasuna, ekologia, euskara, ahalduntzea, feminismoa, osasuna, e.a. landuko dituzten espazio bat sortu gazteekin batera. Herriko beste espazio batzuk erabili, plazatik eta udaletik kanpo.*
- *Gurasoen inguruko lanketan.*

- Arlo askotan
- Fomentar alguna salida más organizada por el gazteleku
- Ez dauzket adin horreko umeak beraz ez dakit.
- Herriari lotutako ekintzak egitea (herria ezagutu, herrian eragingo duten ekintzak...)

Gazteri Foroaren lana ezagutzen duzu? // ¿Conoces el trabajo del Foro de Juventud?

20 respuestas



Gazteri Foroaren lana nahiko ezagutzen dela baloratu daiteke.

Orohar, besterik aipatzeko ote duten galdetuta:

- *Todo está bien.*
- *Eskerrik asko*
- *Está bien.*
- *Galdetegi egokia da*
- *El servicio es muy bueno pero el coste gana para la participación que hay*
- *Ez, ez dut beste ezer gehitu nahi.*
- *Nada más, gracias*
- *Ondo dago*
- *Ez. Jarraitu horrela!*
- *Itsasondo guztion herria izan beharko litzateke. Guztioi entzun eta behar eta proposamenetara egokiturikoa.*
- *No.*
- *Guraso elkarteak egiten duten ekintza guztietan udaletxearen laguntza gehiago edukitzea batez ere ekonomikoki. Eskerrik asko.*
- *Udalekuetan haur adinen behar desberdinei erantzuten saiatu behar dira.*

ONDORIOAK:

- Zerbitzua mantentzea egokia litzateke, beti ere, errealitatera egokitu eta helburu zehatz batzuei erantzuteko.
- Ezin da aisialdi eskaintza soil bat izan. Herriko haur eta gazteen beharretara egokitu behar da.
- Zerbitzua emateko egunak, moduak eta orduak aztertu behar ditugu.

++++